BESTELAKO XEDAPENAK

GARAPENERAKO LANKIDETZAREN EUSKAL AGENTZIA

2918

EBAZPENA, 2013ko apirilaren 25ekoa, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren zuzendariarena, SETEM Hego Haizea elkarteak programetarako laguntzak jasotzeko beharrezko administrazio-baldintzak eta ahalmenak betetzen dituela egiaztatzeko dena. Adierazitako laguntzak apirilaren 3ko 57/2007 Dekretuak arautzen ditu.

Garapena eta Lankidetza Sustatzeko Fondoaren kargurako proiektuetarako laguntzak arautzen dituen apirilaren 3ko 57/2007 Dekretuaren 10. artikuluan xedatzen denez, diru-laguntza jaso ahal izateko, dagokion programa-deialdia ixten den egunean erakunde eskatzaileak aldeko eta indarreko ebazpen bat eduki beharko du, eta ebazpen horretan egiaztatuko da dekretu horren I. kapituluaren 2. atalean ezarritako administrazio-baldintzak eta ahalmenak betetzen dituela.

Aipatutako dekretu horren 11. artikuluan xedatzen denez, Garapenerako Lankidetzaren Zuzendaritzak ebatzi beharko du egiaztatze-eskaera hori, kontuan harturik eskaerak 36 hilabeteko indarraldia izango duela, argitaratzen den egunetik hasita.

Horiek horrela, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziak apustua egiten du lankidetza egiturazko eta eraldatzaile baten alde. Lankidetza horrek epe luzerako aldaketa-prozesu integralak sustatu nahi ditu, garapena oztopatzen duten arrazoi guztietan eragiteko, eta ondorioz maila guztietan (tokikoan, estatuan eta nazioartean) erakunde, arau eta balioak eraldatzeko, epe laburrerako ekintza mugatuetarako laguntzak gaindituz eta helburu bakar batekin: oinarrizko beharrei erantzutea, gabezia horiek eragiten dituzten arrazoietan eragin gabe. Garapenak egiturazko aldaketak behar ditu, eta lankidetzak ildo horretatik jardun behar du.

SETEM Hego Haizea elkarteak Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziara bidalitako 2012ko urriaren 23ko idazkiaren bidez, programetarako laguntzak jasotzeko egiaztatze-eskaera bat aurkeztu zuen.

Eskaerarekin batera aurkeztutako dokumentazioa azterturik ikusi da SETEM Hego Haizea elkarteak bete egiten dituela I. kapituluaren 2. atalean ezarritako administrazio-baldintzak eta ahalmenak.

Adierazitakoagatik, honako hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa: Egiaztatzea SETEM Hego Haizea elkarteak bete egiten dituela programetarako laguntzak jasotzeko bete beharreko administrazio-baldintzak eta ahalmenak; eta bete egiten ditu 36 hilabetez, ebazpen hau EHAAn argitaratu eta hurrengo egunetik hasita. Denbora-tarte horreta, SETEM Hego Haizea elkarteak zuzenean parte hartu ahal izango du programetarako laguntzak jasotzeko deialdietan, deialdi bakoitzean egiaztatzeko premiarik izan gabe.

Bigarrena: Egiaztatze-indarraldian zehar, Garapenerako Lankidetzaren Zuzendaritzak aurkera izango du egokitzat jotzen dituen eguneratzeak edo/eta argibideak eskatzeko SETEM Hego Haizea elkarteari, administrazio-baldintzak eta ahalmenak betetzeari dagokionez. Ikusten bada eskatutako baldintzaren bat edo ahalmenen bat ez duela gehiago betetzen, Garapenerako Lan-

kidetzaren Zuzendaritzak ofizioz ekin ahal izango dio egiaztapen hori indargabetzeko espediente bati.

Hirugarrena: Ebazpen honen aurka, gora jotzeko errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziako lehendakariari, hilabeteko epean, ebazpena argitaratu eta biharamunetik hasita.

Vitoria-Gasteiz, 2013ko apirilaren 25a.

Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziako zuzendaria,
PAUL ORTEGA ETCHEVERRY.